

WIKI-HISTORIAK

Meta-historia

Haizea Barcenilla Garcia - Saioa Olmo Alonso

“Matrioska” edo errusiar panpina horren erako kontaketa bat da hau. Zenbait historia dituen historia bat beste historia baten barruan. Pieza horietako –Wiki-historietako– baten historia kontatuko dugu, baina, halaberrez, gainerako historiekin eta testuinguruarekin lotuta irakurri behar da.

Wiki-historiak euskal esparruan artearen historia eratzea sustatzeko proiektu bat da; hain zuzen, esparru hartan gauden emakume artiston eta kultura-eragileon ahotik eratzeke. Historiak genero-ikuspegiarekin eta elkarlanean sortzeko esperimentu bat. Oihu bat da, Historia emakumeona ere badela aldarrikatzeko. Sinetsita gaude historia bat ere ez dela objektiboa unibertsalki, egia-erregimen jakin batzuen barruan baizik. Lanbide- eta bizi-ikasketa bat.

*Bazen behin errusiar panpinen familia bat,
sistema heteropatriarkal batean bizi zena. Ez
zekiten horrek zehatz-mehatz zer esan nahi zuen,
baina bazekiten ipuin guztiak, era susmagarrian,
antzera amaitzen zirela haientzat.*



2008an, Wiki-historiak proiektuarekin hasi ginenean, bazeuden proiektuaren oinarri gisa funtsezkotzat hartzen genituen gai batzuk. Haietako bat euskal testuinguruaren historia berriro azaldu beharra zen, genero-ikuspuntutik. Harrituta geunden, emakume artisten erreferentziarik ez baikenuen aurkitzen; emakume artistak ez zeuden museoetako bildumetan, banakako erakusketetan; erakunde horietatik iristen zitzaizkigun arrastoak kontuan hartuta, pentsa liteke emakume bat ere ez zela inoiz profesionalizatu Euskadiko arte-esparruan. Dena den, bagenekien bazeudela, sorginak bezala, ezagutu baikenituen eta haien historiak entzunda baikeneuzkan. Hortaz, emakume artistak bazeuden, nola eta nondik idazten ari zen historia hau, emakume horiek hain modu urrian erakusten dituen historia hau?

*Panpinarik txikiena kexatu egiten zen, ikusezina
baitzen. Ez da ezer berezirik egin hori horrelakoa
izan dadin, ordena naturala da, esaten zioten
besteek. Horrek, ordea, ez zuen inondik inora
asebetetzen. Txikia eta trinkoa izatea gauza
bat zen, baina alde zurretik zehaztutako modu
batean ordenatuta egotea oso desberdina zen.*



2008-9-11. Wiki-historiak proiektuaren lehen aurkezpena Erreakzioaren *Hemen eta Orain!* programaren barne, rekalde aretoa. Bilbo. Argazkia: Begoña Zubero.

Bigarren gaiari dagokionez, egoera hori jasaten zuten emakume artista sentsibilizatuen kolektiboak proiektuan hartuko zuen parte; wikia erabiliko zuten, beren kontakizunak eratzeko eta euren/gure historian euren lekua eskatzeko. Lehen gaian oker ez geundela ziur geunden, baina parte-hartzearen gaia korapilatsuagoa izan zen. Hainbat faktore azaldu ziren: sareko tresnen berezko logika maneiatzeko eta ulertzeko zailtasuna; mundu birtuala mundu errealetik oso urrun dagoen sentsazioa, zuzeneko harremanaren beharra; jarduteko bide pragmatikoagoen bilaketa; eta orokorrean, ezegonkortasun nabarmeneko egoera bat, interesa zuten emakume artista askoren parte hartzeko ahalmena asko txikitzen duena.

*Bagenekien figuratxo bakoitzaren barruan,
paper bat zegoela, eta hartan idatzita,
ezagutu nahi genuen eta, senak esaten zigun,
gauzen egungo egoera alda dezakeen historia
bat zegoela. Baina bero handiegia egiten zuen
han kanpoan, zura dilatatuta zegoen, eta gure
eskuak ez ziren behar bezain trebeak. Testu
asko aurkitzeke daude oraindik.*

Wiki-historiak (www.wiki-historias.org) on line eta elkarlanean editatzen den tresna batean oinarritutako proiektu bat da. Horretan, gainera, zenbait jarduera egiten dira, elkarren artean kezka- eta harreman-sare bat bilbatzeko.

Laster, proiektuaren alderdirik teknikoenak energia asko xurgatzen zituela ohartu ginen: wikia eratzea, funtzionatzeko modurik errazena bilatzea, praktikoa izan dadin lortzea. Tresna digitala denez, haren itxura birtuala nagusitu egin zen. Baina dinamizatu beharra zegoen. Atzera begira, wikia jendearengana hurbiltzeko eman genuen denbora eta erabili genituen baliabideak ez ziren nahikoak izan. Hasieratik sentitu genuen wikia ez zela guk nahi bezain autonomia.

*Batzuetan, ekintza batzuk errazagoak dira
beste batzuk baino. Horixe gertatzen zitzaien
1. matrioskari; harentzat, edukitzea zen
errazena. Kanta zezakeen, baina gehiago
kostatzen zitzaien, eta hain zuzen, horrek
bultzatzen zuen kantuan aritzera. Zinez,
ahotsa zertxobait harrotua zuen, baina hori
ere haren edertasunaren zati bat zen.*

Euskadiko artearen historia berrian, feminismoari eta genero-politikei buruzko arte-ekimen asko daude eta egon dira. Kezka komunetan murgiltzen diren pertsonak, kolektiboak eta egiturak, osmosi bidez hunkitzen direnak, testuinguruarekin inputak trukatzeko dituztenak, eta arrastoak uzten dituztenak. Horretarako, denak balio du: laurogeita hamarreko hamarkadan auzo-etxeetan artearen eta emakumearen inguruan egindako programazioak; Adelina Moya, Lourdes Méndez, Rosa Andreu, Txaro Arrazola, Gentz del Valle, Kontxa Elorza, Arantza Lauzirika eta beste hainbat irakasle, unibertsitatean ikasleengan generoarekiko interesa piztu dutenak; Arte Ederretako emakume ikasleek emakume langilearen egunean egiten dituzten erakusketak; feminismoaren aldeko apustu irmoa egiten duten zentroak, hala nola Arteleku eta Montehermoso Kulturunea; bereziki sentikortutako produkzio egiturak, hala nola Trocóniz Santacoloma Fundazioa, consonni eta La Taller; Feministaldia, Cotidianas eta bestelako programazioak; Zehar, Pipa, Píkara, Belcro eta antzeko argitalpenak; Nekane Aramburu, María José Aranzasti, Maider Zilbeti, Maite Garbayo, María Ptqk, Aimar Arriola eta beste eragile independente batzuk; Erreakzioa-Reacción, Pripublikarrak, TomBoi, Artísimas, Gudari Kings, Medeak, Mobiolak, Mujeres Imperfectas eta beste kolektibo batzuk; Esther Ferrer, Inés Medina, Blanca Oraa, María Seco, Itziar Okariz, Jeleton, Elssie Ansareo, Sra. Polariska eta beste emakume artista asko. Hain zuzen ere, wikiaren helburua testuinguruaren gaineko mapa lankidetzan osatzea zen, mintzatzen denaren bizipenetatik burutu gabe eta kokatuta dagoen gainbegiratu osatzea.

Trocóniz Santacoloma Pripublikarrak kolektiboarekin jarri zen harremanetan, arteari, generoari eta teknologia berriei buruzko jarduera bat antolatzeko. Pripublikarrak kolektiboak ez zuen gonbidapena onartu, eta Saiok erronkari ekin zion.



Ni zukan nago, eta zu nigan zaude. Eta horrela, batetik bestera, oinorde baliotsua garraiatzen dugu. Jabetasuna eman.¹

Esan behar da aulkia koloka zegoela. Izan ere, Saioak diseinatu zuenean, hiru profil zituen: historialari bat, artista bat eta ziberfeminista bat. Hasi baino lehen, ordea, aulkiaren hirugarren oina beste proiektu batera joan zen, beste herrialde batera. Gu geu ordeztan ahalegindu ginen, optimismo handiz baina, batzuetan, errealismo gutxiarekin.

Gu, matrioskok, "mise en abyme" bat gara, itxuraz amaierarik ez duen leize mugagabe baten sakonera handia, beldurgarria eta arriskutsua. Dena menderatzen dugula uste dugu, zorionez, zoritxarrez baino.

Lehen fasean, oso une garrantzitsuak egon ziren: Trocóniz Santacoloma Fundazioak antolatutako ikastaroa, artearen historiaren eraikuntzari eta wiki tresnaren erabilerari buruzkoa; Bilboko Arte Ederren Museora genero-ikuspuntutik egindako bisitak, aipatzen ari ginen historiari buruz in situ hausnartzeko; eta Wiki-Jaia, lankide, lagun eta konplize askorekin. Jende asko hurbildu zen jarduera horietara, eta asko gozatu zuen, eta horrek erakusten digu komunitateak (zuzenagoa izango litzateke sateliteen eta planeten galaxia esatea) harreman pertsonal hurbilagoa zuela eta haren behar handiagoa zuela, sareko tresnaren ordeztan, zailagoa baitzuen harekin bat egitea.

Montehermoso Kulturuneko Pasahitzen 10. zikloa, Wiki-historiak zuzendua, bideo-sorta bat da. Bideoek gure gizarte-interakzioetan sartzen diren genero-mezuei buruzko erreferentziak, keinuak eta iradokizunak transmititzen dituzte. Arte-produkzioa, egoerak argi eta garbi adierazteko modu gisa, haiek mugitzen jolasteko.

"Zure buruan dago, begien atzean", esan zion matrioska batek beste bati. Munstroa nire buruan badago, zurean ere bai, horrenbestez.

Wiki-historien helburuetako bat askoren proiektua izatea zen, egiletza argiko proiektua izatea, eta horretan, guk baliabide bat botatzen genuen, eta denon artean erabaki behar zen hura nola kudeatu. Historiako gune prokomun bat, egiletza elkarbanatuko eraikuntza-modu bat. Dena den, pertsona askorentzat, zaila izan zen ideia hori ulertzea, eta proiektua Haizea eta Saioaren guren bitartez azaltzeak ez zuen laguntzen emakume artista eta eragile asko proiektuaren parte sentitzen.

Arte-esparrua oso indibidualizatuta dago, eta, beraz, elkarlaneko jardueren aurkako testuingurua da. Eredu nagusia artista indibidualarena eta komisario edo zuzendari izarrarena da; hau da, ezagutzeko moduko estiloak eta beren markak sortzen dituztenena. Testuingurua ezegonkorra da, baita etorkizuna ere, eta horren ondorioz, gehienek apustu pertsonala egitea aukeratzen dute.

Hasieratik, egiletza elkarbanatua nahi genuenez, ordeztuak egotea nahi genuen; proiektua propiotzat eta beharrezkotzat hartzen zutenen artean batetik bestera igarotzea nahi genuen, eta kudeatzen duen komunitatearen zatiaren itxura hartzea. Hortaz, interesa zuten zenbait pertsona hurbildu ziren gugana, eta denboran zehar, lankidetzak eratu ziren. Batzuek Wiki-historietako talde aktiboak sortu zituzten zenbait denboralditan (esate baterako, Aloña Intxaurrendieta eta Edu Hurtado), baina, oro har, ordeztuaren ideia desioa izan zen, errealitatea baino gehiago. Agian, gaur egungo militantzia-ahalmena mugatua delako (pentsamoldez edo ezegonkortasunaren ondorioz), Wiki-historien hasierako helburuekin edo moduekin bat egitea zaila delako, edo egile nozioa oso barneratuta dugulako eta, hortaz, ezin delako beste pertsona batzuek martxan jarritako proiektu bat propiotzat hartu.



2009-2010. Bilboko Arte Eder museora bisita gidatuak genero ikuspegitik eta tailerra bildumako emakume artisten obrekin.

2. matrioskak bitan zatitzearen alde egingo zuen. 5.a, denetan apainduena, bere kabuz ausartuko zen apalategietan. 6.ak altxorrek gordetzea beste asmorik ez zuen. 8.ak Marymore izena hartu zuen, eta orain, desberdin sentitzen zen. 7.arengandik ez dakigu ezer ere ez. 1.a eta 3.a prest zeuden, baina 1.ari gogorik eza nagusitu zitzaion.

Saioak, Haizeak eta Aloñak proiektuari norabide ludikoa ematea erabaki genuen, guretzat eta hurbiltzen zirenentzat atseginagoa izan zedin, irudimena, barrea, ironia eta kritika askatuz. Horrela sortu ziren Klase Magistralak (XX. mendeko euskal artearen testuinguruko zenbait pertsonaiaren historiari buruzko fikziozko dokumentalak), Erretratu Subjektiboa (bideo-kate bat; bideo batean, emakume artista edo bitartekari batek interesatzen zaion beste bati buruz hitz egiten zuen, eta horrek, beste bideo batean, beste artista edo bitartekari bati buruz hitz egiten zuen, eta horrela); eta "Haritik tira" bisita performatikoa, etxe-eremu batean, etxe haren memoria Wiki-historiak euskal testuingurutik kanpo aurkezteko erabiliz.

Trileroa figurak mugitzen ari zen, joko berri bat aurkitzeko. Ez zuen inorengandik ezer lortu nahi, ez dirurik, ez mirespenik; jokoarekin gozatu nahi zuen, besterik ez.

Plataforma A aldian behingo topaketa-segida bat da. 2011z geroztik, euskal esparruko artistak eta kultura-eragileak biltzen dira, arteetan generoa lantzeko interesarekin; hain zuzen, lanbide- eta ikusgaitasun-baldintzak hobetzeko. Gaur egunera arte, Plataformak 8 topaketa egin ditu Donostian, Bilbon eta Gasteizen, eta haietako bakoitzean, 80-100 pertsonak hartu dute parte. Zenbait lan egin dira: egitura bera zehazteko, testuinguruko egoerei buruzko azterketa estatistikoak egiteko, agintari eskudunei arteetan berdintasunari buruzko legeak bete ditzaten eskatzeko. Gainera, bi talde-ekintza performatibo egin dira eremu publikoan, "¡Asalta!" eta "Brindis", museoen nazioarteko eguna dela eta. Denboraldi honetan, Wiki-historiak Plataforma Aren webgunea izan da.

Mezu elektroniko batean, zenbait eragilek indarrak batzeko eta arteetan dugun egoera hobetzeko kezka berriro sortu zela esan ziguten. Asmo hori bat etor zitekeen Wiki-historien printzipio eragileekin. Gure proposamenaren bidez pertsona askorengana iristea lortu ez genuenez, haiekin lotzeko aukera ona zela pentsatu genuen. Wiki-historiak proiektuak ekimen berri horrekin egingo zuen bat.

Leihoa zabaldu, eta haize-bolada bat sartu zen. Figuratxoak dantza berri batean mugitu ziren. Batzuek elkar jo, eta zarata egin zuten; beste batzuk biraka ibili ziren, apaleko beste objektu batzuk jo arte. Batzuk lurrera erori, eta ireki zirenean, beste figuratxo batzuk agertu ziren; ezagutzen ez dugun historia duten figuratxoak.

1 "Jabetasun eman" Leire Saitua Iribarrek zenbait forotan babestutako adierazpidea da, jabetza ideiaaren alternatiba gisa: «Jabetza Zuzenbide Erromatarraren kontzeptu bat da: "nirea zelako hil nuen". Jabetasun kontzeptua, ordea, kontzientzia hartzeari, zaintzeari, dagokio. Usufuktu ere esan ohi zaio: erabilera eta gozamena. Baina nik esango nuke lotura handiagoa duela zainketaekin. Behin batean, amari entzun nion, etxe inguruko sasiak moztutakoan: "sikieran be! Emontsegu jabetasune etxieri". Amak berak itzuli zuen gaztelaniara: "que se sepa que tiene amo (la casa)". <http://leiresaituairibar.blogspot.com.es/2010/01/propiedad-y-jabetasun.html>



2009-4.4. Wiki-jaia. Festa artista eta kolektibo feminista desberdinekin L'mono espazioan.

WIKI-HISTORIAS

La meta-historia

Haizea Barcenilla Garcia - Saioa Olmo Alonso

Este es un relato tipo “Matrioska”, o muñeca rusa. Una historia dentro de una Historia que a la vez contiene otras historias. Vamos a contar la historia de una de estas piezas, Wiki-historias, aunque inevitablemente hay que leerla en relación a las demás historias y a su contexto.

Wiki-historias es un proyecto para impulsar la construcción de la historia del arte en el ámbito vasco de boca de las propias artistas y agentes culturales que formamos parte de él. Un experimento para elaborar historias con perspectiva de género de manera colaborativa. Un grito reclamando que la Historia también nos pertenece a nosotras. La convicción de que ninguna historia es objetiva de manera universal, sino dentro de regímenes de verdad concretos. Un aprendizaje profesional y vital.

*Érase una vez una familia de muñecas rusas
que vivía en un sistema heteropatriarcal. No
sabían exactamente qué significaba esto, pero sí
sabían que sospechosamente todos los cuentos
terminaban de manera parecida para ellas.*

Cuando en el 2008 comenzamos con Wiki-Historias, había una serie de cuestiones que considerábamos fundamentales como base del proyecto. Una de ellas era responder a la necesidad de replantearse la historia del contexto vasco en el que vivimos desde un punto de vista de género. Nos asombraba la falta de referencias a mujeres artistas con la que nos topábamos; su ausencia en las colecciones de los museos, en las exposiciones individuales; cualquiera pensaría, vistos los vestigios que nos llegaban desde estas instituciones, que jamás se profesionalizó una mujer en el campo artístico en el País Vasco. No obstante, sabíamos que, como las brujas, haberlas haylas, porque las habíamos conocido y habíamos escuchado sus historias. Por lo tanto, si ellas existían, ¿cómo y desde dónde se estaba escribiendo esta historia con la que vivimos, en la que son tan poco visibles?

*La más pequeña de las muñecas se quejaba
de lo invisible que era. No se ha hecho nada
especial por que esto sea así, es el orden natural,
le decían las otras. Esto no le convencía lo más
mínimo. Una cosa es que fuera pequeña y maciza
y otra muy diferente que tuvieran que estar
ordenadas de una manera predeterminada.*



La segunda cuestión de la que partíamos era que el colectivo de artistas sensibilizadas, que habían sufrido esta situación, participaría en el proyecto, tomando la wiki para construir sus propios relatos y reclamar su espacio en su/nuestra historia. Así como estamos seguras de que no nos equivocábamos en la primera cuestión, la participación resultó más compleja. Entraron en juego diversos factores: la dificultad para manejar y comprender la lógica intrínseca de las herramientas en red; la sensación de que el mundo virtual está muy alejado del real, la necesidad del contacto directo; la búsqueda de vías más pragmáticas de acción; y en general, una situación de precariedad flagrante que reduce en gran medida la capacidad de participación de muchas agentes interesadas.

Sabíamos que dentro de cada figurita había un papel escrito con una historia que queríamos conocer y que intuíamos con capacidad de transformar el status quo de las cosas. Pero hacía demasiado calor ahí fuera, la madera estaba dilatada y nuestras manos no tenían la suficiente destreza. Muchos textos están aún por descubrir.

Wiki-historias es un proyecto basado en una herramienta on-line de edición colaborativa www.wiki-historias.org, además de una serie de actividades con las que ir tejiendo una red de inquietudes y relaciones en común.

Pronto nos dimos cuenta de que la faceta más técnica del proyecto absorbía muchas energías: construir la wiki, buscar su forma más sencilla de funcionamiento, hacerla práctica. Al ser una herramienta digital, su forma virtual predominó. Pero requería dinamización. Visto con perspectiva, el tiempo y los recursos que invertimos en acercar la wiki a la gente no fueron suficientes. Desde el principio sentimos la wiki menos autónoma de lo que hubiéramos deseado.

A veces determinadas acciones nos resultan más fáciles que otras. Es lo que le pasaba a la Matrioska nº 1, lo más fácil para ella era contener. Cantar podía, pero le costaba más y eso mismo es lo que la empujaba a dedicarse al canto. Ciertamente, tenía una voz un tanto ahuecada, pero ésa también era parte de su belleza.

En la historia reciente del arte del contexto vasco, existen y han existido muchas iniciativas artísticas en torno al feminismo y las políticas de género. Personas, colectivos y estructuras que se van contaminando de preocupaciones comunes, que se van emocionando por ósmosis, que van intercambiando inputs con el contexto y que van dejando poso. Para esto todo cuenta: las programaciones en torno a arte y mujer en los centros cívicos en los años noventa; incontables profesoras como Adelina Moya, Lourdes Méndez, Rosa Andreu, Txaro Arrazola, Gentz del Valle, Kontxa Elorza, Arantza Lauzirika... y más, que desde la universidad han sembrado en el alumnado interés por cuestiones de género; exposiciones de alumnas de BBAA alrededor del día de la mujer trabajadora; centros con una apuesta clara por el feminismo como Arteleku y el Centro Cultural Montehermoso; estructuras de producción especialmente sensibilizadas como la Fundación Trocóniz Santacoloma, consonni o La Taller; programaciones como Feministaldia, Cotidianas...; publicaciones como Zehar, Pipa, Pikara, Belcro...; agentes independientes como Nekane Aramburu, María José Aranzasti, Maider Zilbeti, Maite Garbayo, María Ptqk, Aimar Arriola...; colectivos como Erreakzioa-Reacción, Pripublikarrak, TomBoi, Artisimas, Gudari Kings, Medeak, Mobiolak, Mujeres Imperfectas; artistas como Esther Ferrer, Inés Medina, Blanca Oraa, María Seco, Itziar Okariz, Jeleton, Elssie Ansareo, Sra. Polariska... Y muchas más. El objetivo de la wiki era precisamente completar de manera compartida el mapeo sobre el contexto, un repaso siempre inconcluso y situado desde la vivencia de quien habla.



Trocóniz Santacoloma se puso en contacto con el colectivo Pripublikarrak para organizar una actividad en torno a arte, género y nuevas tecnologías. Pripublikarrak como tal no aceptó la invitación y Saioa recogió el guante.

Yo estoy en ti y tú estás en mí. Y así de una a otra vamos transportando una valiosa herencia. Jabetasuna eman.¹

Es necesario decir que la silla tenía además una pata coja, porque cuando Saioa la diseñó, se mantenía sobre tres perfiles diferentes: una historiadora, una artista y una ciberfeminista. Antes de empezar, la tercera pata se marchó a otro proyecto, en otro país. Intentamos suplir nosotras mismas esta figura, partiendo de mucho optimismo pero, a veces, pecando de poco realismo.

Nosotras las matrioskas somos un “mise en abyme”, una profundidad grande, imponente y peligrosa, la de una sima infinita, sin final aparente. Creemos poderlo todo, más afortunadamente que desgraciadamente.

En la primera fase hubo momentos muy importantes: el curso organizado con la Fundación Trocóniz Santacoloma sobre construcción de la historia del arte y uso de la herramienta wiki; las visitas desde un punto de vista de género al Museo de Bellas Artes de Bilbao, para reflexionar in situ sobre la historia a la que hacíamos referencia y la Wiki-Jaia, con un montón de colaboradoras, amigas y cómplices. Tal vez la asistencia y el disfrute de todas estas actividades nos muestran que la comunidad (que sería más correcto definir como una galaxia de satélites y planetas) sentía más necesaria y cercana una relación personal que una herramienta en red, con la que no se identificaba tan directamente.

El 10º ciclo Contraseñas en el Centro Cultural Montehermoso, dirigido por Wiki-historias, es una selección de vídeos que transmiten referencias, guiños e inspiraciones sobre los mensajes de género que se introyectan en nuestras interacciones sociales. La producción artística como manera de explicitar situaciones para jugar a moverlas.

“Está en tu cabeza, detrás de los ojos” le dijo una matrioska a otra. Si el monstruo está en mi cabeza, por consecuencia en la tuya también.



Uno de los objetivos de Wiki-historias era ser un proyecto conjunto, sin una autoría clara, en la que nosotras lanzáramos un recurso que decidiéramos cómo gestionar entre todas. Un espacio procomún de la historia, una forma de construcción de autoría compartida. No obstante, esta idea resultó difícil de asimilar para bastantes personas, y explicar el proyecto desde el nosotras de Haizea y Saioa no ayudaba a que muchas artistas y agentes se sintieran incluidas en él.

El ámbito artístico, al estar altamente individualizado, es un contexto adverso para las prácticas colaborativas. El modelo predominante es el de artista individual y el de comisario o director estrella, que construye un estilo reconocible y su propia marca. Un contexto precario y un horizonte de futuro igualmente precario son ingredientes que decantan la elección hacia la apuesta personal.

Puesto que deseábamos esta autoría compartida, desde el principio, quisimos que existiera un relevo; que el proyecto pasara de mano en mano entre quienes lo consideraran propio y necesario, y que fuera tomando la forma de la parte de la comunidad que lo gestionase. Así, varias personas interesadas se acercaron a nosotras y se establecieron colaboraciones a través del tiempo. Aunque algunas se convirtieron en grupo activo de Wiki-historias durante ciertos periodos (como en el caso de Aloña Intxaurrendieta y Edu Hurtado), en general la idea del relevo fue más un deseo que una realidad. Tal vez porque la capacidad de militancia actual sea limitada (por mentalidad o por precariedad), por no identificarse con los “qués” o los “cómos” del planteamiento inicial de Wiki-historias, o porque la idea de autor está tan presente en nuestro imaginario que cuesta hacer propio un proyecto puesto en marcha por otras personas.

La matrioska nº 2 iba a apostar por dividirse en dos. La nº 5, la más adornada de todas, probaría suerte en las estanterías por su cuenta. La 6 estaba absorbida por la tarea de guardar tesoros. La 8 pasó a llamarse Marymore y ahora se sentía diferente. De la nº 7 no sabemos nada. La 1 y la 3 estaban por la labor, pero a la 1 le atrapó el desánimo.

Saioa, Haizea y Aloña decidimos darle un giro lúdico al proyecto, de manera que fuera más grato para nosotras mismas y para quienes se acercaran a él, dando rienda suelta a la imaginación, la risa, la ironía y la crítica. Así nacieron las Clases Magistrales (documentales ficticios sobre la historia de ciertos personajes del contexto del arte vasco de principios del siglo XX), el Retrato Subjetivo (una cadena de vídeos en los que una artista o mediadora hablaba de otra de su interés, que a su vez hablaba de otra, y así sucesivamente) y la visita performática “Tirando del hilo” dentro de un espacio doméstico, utilizando la memoria de esa casa como punto de partida para presentar Wiki-historias fuera del contexto vasco.



* 2013. *¡Asalta!*: Acción grupal performativa como parte de Plataforma A reclamando el cumplimiento de las Leyes de Igualdad. Fotos: Diana Terceño.

El trilero estaba moviendo las figuras para intentar encontrar un nuevo juego. No buscaba ya nada de nadie, ni dinero, ni admiración, sino simplemente disfrutar con el juego él mismo.

Plataforma A es una serie de encuentros periódicos que desde 2011 aglutinan a distintas artistas y agentes culturales del ámbito vasco, interesadas en trabajar cuestiones de género en las artes, específicamente en lo que a mejorar las condiciones profesionales y de visibilidad se refiere. Hasta el momento Plataforma ha realizado 8 encuentros en Donostia-San Sebastián, Bilbao y Vitoria-Gasteiz, congregando en cada uno a entre 80 y 10 interesadas. Se han realizado trabajos de definición de la propia estructura, análisis estadísticos de situaciones del contexto, reclamación a las autoridades competentes del cumplimiento de las Leyes de Igualdad en las Artes y dos acciones grupales performativas en el espacio público, “¡Asalta! y “Brindis”, con motivo del día internacional de los museos. Wiki-historias ha sido el espacio web de Plataforma A en este tiempo.

Nos llegó un mail diciendo que había surgido de nuevo la inquietud desde distintas agentes por unir fuerzas para mejorar nuestra situación en las artes. El deseo podía llegar a ser coincidente con los principios motores de Wiki-historias. Pensamos que era una buena oportunidad para enlazar con personas a quienes desde nuestro planteamiento no habíamos conseguido llegar. Wiki-historias se sumaría a la incipiente iniciativa.

Se abrió la ventana y entró una bocanada de aire. Las figurillas se movieron en un nuevo baile. Algunas hicieron ruido al pegarse unas con otras, otras rodaron hasta chocar con otros objetos del estante. Algunas se cayeron y al abrirse aparecieron nuevas figurillas, cuya historia aún desconocemos.

1 “Jabetasun eman” es un término en euskera defendido por Leire Saitua Iribar en distintos foros, como alternativo a la idea de propiedad: “Mientras que la propiedad es un concepto del Derecho Romano: ‘la maté porque era mía’, el concepto de jabetasun se refiere a tomar conciencia de, a cuidar. Se ha solido traducir como ‘usufructo’: uso y disfrute, pero yo diría que está incluso más vinculado con el cuidado. En una ocasión, escuché a nuestra madre, al terminar de cortar las zarzas que había alrededor de la casa: ‘sikieran bel, emontsegu jabetasune etxieri’, que ella misma tradujo al castellano a continuación diciendo: ‘que se sepa que tiene amo (la casa)’”. <http://leiresaituairibar.blogspot.com.es/2010/01/propiedad-y-jabetasun.html>



* 2014. *Brindis*: Acción grupal performativa como parte de Plataforma A reclamando el cumplimiento de las Leyes de Igualdad. Fotos: Elena Solatxi